

Koaderno Sindikalak

Irakaskuntza

EBALUAZIO HEZITZAILEA

hezkuntza burujabea



iruten

LAB

Koaderno Sindikal honetan Ebaluazio Hezitzailearen inguruko hausnarketa egin eta bide horretarako gida bat eskeintzea da gure asmoa. Ebaluazioaren inguruan formakuntza jaso nahiko luketen ikastetxeek iruten@lab.eus helbidean egin ditzakete eskaerak.

Ikasgela birtuala ere formakuntzarako beste tresna bat da. LAB sindikatura afiliatutako edonork ikasgela.iparhegoa.eus webgunean gai honi zein beste batzuei buruzko material osagarri, hausnarketarako ariketak zein eztabaida-guneak eskuragarri dituelarik.

1. SAR HITZA. EBALUAZIOA:

“Begirada poliedrikoa eta osasungarria”

Ebaluazioak erpin asko ditu eta hainbat begiradek gorputz dezakete gure ebaluazioa, baina ia inoiz ez da ebaluazio osoa integrala izango. Izan ere, pertsonak, ikas-taldeak eta eskola-komunitateak oso konplexuak dira. Eta konplexutasuna aberatsa den heinean, hori ebaluatzeak zailtasunak ditu. Zer nork ebalua dezake edo ebaluatu beharko luke? Zein puntura arte ariko gara hobekuntzaren, hasieraren eta garapenaren hobe beharrez, kalifikazioaren joera murriztailea gainditzen? Gerturatze bat egiteko eta abiatzeko, ebaluazioak badu ekintza bidezko ikerketarako tresnen potentziala. Baina, aldi berean, hezkuntza prozesuaren beraren norabidea ematen du, hau da, zer behatzen den, zertarako eta nola egiten den, ikas-irakas edota hezte prozesua baldintzatzen duela esango genuke. Ebaluazioak, azken finean, hezkuntza ulertzeko filosofia adierazten baitu.

Gure iritziz, abiapuntuko ebaluazioa litzateke, adibidez, irakasle, irakasle, guraso eta eskola komunitateko guztiek eskolarako bidean eta handik bueltan agertzen duten poza, irrika, ilusioa, jakin-mina, harreman-mota, partekatze gogoia eta abar behatzea. Horrek nolabaiteko gerturatzea emango liguke eskola barruan gertatzen ari denaz edo gertatu beharko lukeenez, behintzat. Eskola barruan gertatzen denak ez al du, bada, isla izango bere inguruan? Eta, alderantziz, eskolako mugetatik kanpo gertatzen denak ez al luke islarik izan beharko gela eta jangeletan, patio eta pasilloetan?

Behin eskolara sartuta, gerta liteke bide administratibotik datozen curriculumen eta ebaluazio irizpideen jarraitzaile hertsia izatea. Eta horrek bere ondorioak izango ditu. Bestelakoa izango da, berriz, eskola-komunitateak adostua baldin badu zer jendarte-mota hobesten duen, zer ikasle-mota amesten duen, zein balio lehenesten dituen, zer herri-mota irudikatzen duen, nolako mundua desiratzen duen... Horren arabera komunitate horrek partekatutako balio zein gaitasun batzuk izanen ditu helburu eta ebaluazio irizpide. Komunitate horrek berea egingo du hezte-prozesua, hitz egiteko eta eztabaidatzeko prestatzen ariko da, pentsamendu kritiko eta dibergentea sustatuko du, aniztasuna modu inklusibo batean biziko; hots, entzuteko eta hobetzeko ariketa handia egingo du. Eta horrek bestelako ondorioak izango ditu.

Guk pertsonaren kontzientziazioan eta ahalduntzean sinesten dugu, bere autonomiaren eraikuntzan, irizpide kritikoan, unean-uneko erabakitze gaitasunean, besteekiko harremanak errespetuan eraikitze lanketan, norbera izateko gogoan, berdin aniztasunean eta harreman parekidean, elkertasunean, kooperazioan eta kolaborazioan, ikasteko irrikan, talde-lanean, kultur-identitatea finkatzean eta abar-rean. Horretarako, ikaslea, pertsona, erdigunean jarri eta ingurune humano, material eta fisiko egokia prestatuko duten formazio handiko profesionalak izango dituen gunea izan beharko luke eskolak.

Amaitzeko, gure ustez, hezkuntzaren kalitateaz ezin izanen dugu solastatu pertsonaren ongizatea, osasuna edota alderdi emozional eta afektiboaren garapen egokia bat izan gabe. Konfiantzak, gardentasunak, norabide askotariko autoebaluazioak-koebaluazioak-heteroebaluazioak, autokritikak eta hausnarketak, profesionalen prestakuntzak eta lan-baldintza egokiek zoru egokia jar dezakete hezkuntza-sistema hobetzeko. Hauek guztiek adostasun zabaleko begiradetara eraman gaitzakete, eskola elkarrekin amastera behingoz.

2. IRUTEN FILOSOFIA

Badira nazio bat egituratzeko orduan funtsezkoak diren osagaiak; hezkuntza horietako bat da, baina hori baino gehiago ere bada. Hezkuntza nazio baten etorkizuna bermatzeko ezinbesteko tresna da. Belaunaldi berriek osatuko baitute biharko jendartea. Horrela, hezkuntza euskaldunak jendarte euskalduna sortuko du; hezkuntza askatzaileak, jendarte askea.

Hiru urte dira LABek IRUTEN dinamika martxan jarri zuela. Azken urteotan garatutako oinarrietan aurrera egin eta Euskal Herriak behar duen hezkuntza sisteman urrats praktikoak egitea izan dugu helburu. Horrela, hezkuntza hizpide, hausnarketak, zalantzak eta tresna eraginkorrak partekatzeko asmotan sortutako egitasmoak lehen fruitua eman du. Ebaluazio Hezitzailea gida, hain zuzen ere.

Izan ere, guk ebaluazio eredu berri baten eraikuntzaren aldeko hautua egiten dugu, ikaslea erdigunean kokatuta, betiere ekitatean, aukera berdintasunean, ikuspegi hezitzaile eta hobekuntza terminoetan ulertuz. Ebaluazio eredu berri horrek eskola, langileak, hezkuntza zerbitzuak eta, finean, sistema guztia baloratuko du eta bide horretan aurrera egiteko plan eta neurri zehatzak eskainiko ditu.

5

Alta, jakin badakigu, bide hau ezin dugula bakarrik egin. Erakunde edo hezkuntza eragile bakoitzak izango du bere hezkuntza proiektua, bere bidea, baina sorburu desberdinak norabide berean jartzean dautza akordioaren bertutea eta indarra. Egiari zor, bi bide besterik ez daude: egungo egoera betikotzen uztea ala herri gisa hausnarketa komuna egin eta Euskal Herriko herritarren beharretara egokitzeko jarrera aktiboa izatea, hezkuntzan burujabetza eskuratzea, alegia. Bestalde, jakitun gara hastapeneko urratsetan gaudela eta hauek ondo bideratu eta garatzea ezinbestekoa izango dela bide honek duen potentzialtasun osoa aktibatu nahi badugu.

Gu prest gaude!

3. EBALUAZIOA IRUTEN MAHAI-INGURUAREN LABURPENA

Lore Erriondo: Filosofia eta Gizarte Zientzietan doktorea. EHU-n Pedagogia irakaslea. UEUko zuzendari ohia.

Alexander Barandiaran: Psikologian Doktorea. HUHEZIn irakaslea. Hazitegi proiektuko koordinatzailea eta ikerlaria. Haur Hezkuntza eta Ebaluazioan aditua.

Ane Ablanedo Larrion: Euskal Filologoa, Psikoterapian eta Neurosiaren Prebentzian aditua. Bigarren Hezkuntzako Euskara eta Euskal Literatura irakaslea, NUPEko irakasle laguntzailea eta Baionako Unibertsitateko irakasle kontratua. UEUko eta HIK HASIko kidea.

Ebaluazioa Iruten Jardunaldietan euskal hezkuntza eraldatzeko lanean ari diren aipatu hiru irakasleen hausnarketak ezagutu ditugu, ebaluazioaren gaian aritu bezain adituak diren horien hitzak jaso ditugu ondoko lerroetan.

ZER DA EBALUAZIOA?

Lore Erriondo: Ebaluazioaz hitz egitea prozesu baten hasieraz eta amaieraz hitz egitea da, diagnostikoa da, eta egin asmo genuen hori egin dugun edo ez ebaluatzeko da. Argi izan behar dugu nola ebaluatu nahi dugun erabakitzeke, baina ez digu ezertarako balio zer ebaluatu nahi dugun ez badakigu. Ebaluazioak kolektiboa izan behar du. Beraz, ebaluaketa aitzakia da nora joan nahi dugun, zer ari garen egiten eta nola hobetu dezakegun eta hausnartzeko.

Alex Barandiaran: Umeak jaiotzatik bertatik pertsona izateko gaitasunak ekartzen ditu. Beti jartzen dut haritzaren sinboloa, gure sinboloa, haritzaren haziak hor dauka haritza izateko haziak, haritz sendoa izateko testuinguru egokia behar du. Pertsona harremanetan garatzen da, baina ez dugu hori kontuan hartzen. Pertsona eta egin duen produktua, alderdi kognitiboa baino ez dugu ebaluatzen, beste guztia kontuan hartu gabe. Gaur egungo ikerketek testuinguruaren garrantzia erakusten dute.

Pertsona zer den, hezkuntza zer den, pentsatzen hasi eta errotiko aldaketa behar dugu. Ebaluazioa errotik aldatu behar da, beste betaurreko batekin begiratu be-

har da. Geure burua transformatu egin behar dugu, paradigma okerra delako. Izan ere, sistema kapitalistarako oso ona da egungo ebaluazioa, sailkatu egiten ditu pertsonak, sistemarako onak diren pertsonak saritu egiten ditu eta besteak ez.

Ane Ablanedo: Nik ez ditut indarrean dauden sistema eta pedagogia errekonozitzen, ez dut sistema onartzen pedagogikoki eta sistema horren jabeak diren Espainia eta Frantzia ere ez ditut onartzen.

Sistemak errekonozitzen ez dituen helburuak oso ongi betetzen ditu, sistemak eta ebaluazioak gure ikuspegitik du hutsunea, baina ez beraien ikuspegitik.

Sistema oso arrakastatsua da pertsona otzanak eta aginduak betetzera bideratze horretan oinarritzen delako. Sistemak ez du ebaluazioa egiten, ebaluazioak diagnostikoa egitera eta hobetzera bideratua egon beharko lukeelako. Oraingo ereduaren "ebaluazioa" kalifikatzera eta klasifikatzera bideratzen da. Eskolak frakasatuak eta arrakastatsuak behar ditu, eta azken finean, ez da ebaluazioa egiten, kalifikazioa baizik.

8

ZEIN FUNTZIO HELBURU BETE BEHARKO LITUZKE EBALUAZIOAK?

Alex Barandiaran: Ikasleak pixka bat heltzen hasten direnean has gaitzke autokontzientzia eta autoebaluazioa aktibatzen. Ikasgelara sartzean dagoeneko neurre burua ebaluatu dut, ondo al nago? Ondoren galdetzen dut ea nire ikasleak nola dauden. Gaizki bagaude, lehen helburua ongi egotea da. Ondo bagaude asko egin dugu. Ondorioz, gu eta umeak ongi gauden aztertu eta neurriak hartzea da egin beharrekoa.

Lehenengo bakoitzak bere burua ebaluatu beharko genuke eta gero taldean. Irakasle taldeak nola gauden talde eta eskola moduan ebaluatu behar du. Egiten dugunak ikasleengan zer eragin daukan ebaluatu behar dugu. Zer deskubritzeko aukera eman diegu gaur ikasleei? Zer deskubritu dugu guk?


Ane Ablanedo: Ikaste prozesua emateko zein testuinguru dugun (ikasgela, gela, etxea...) eta noraino hurbiltzen ari garen ikastea esanguratsua izan dadin ebaluatzea litzateke ebaluazioa.

Alderdi kognitiboa baino ez dugu ebaluatzen

Alexander Barandiaran

Ikastea ez da meritua, naturala da, haurrak berez ikasten du, hau da, ez da irakas-kuntzaren ondorioa. Ikasteko ez da irakatsi behar, horregatik, ikasteko ez dago eskolara joan beharrik. Hortaz, ebaluazioa zera ere litzateke: nola ikasten dugun eta eskolari kentzea ikastea ekiditen duen guztia.

Lore Erriondo: Sistemak esango du gauza bat, baina geuk erabaki behar dugu zein den gure helburua. Zer lortu nahi dugu ikasleekin? Pertsona izatea? Zein paper jokatzan du gutako bakoitzak? Ikasle, irakasle, guraso eta ikastetxeak inplikatu behar ditugu erabakitze prozesu honetan. Ezin dugu jakin-mina eten, ausartak izan behar dugu eta ikasleen jakin-minaren elikatzaile bihurtu.



“Zer” eta “nola” definitu eta adostu behar ditugu, baita ikasleekin ere. Zer definitzeaz gain, nola definitu behar dugun bakoitzak. Denok dugu esperientzia. Irakasleok behatzaileak eta ikertzaileak gara. Buruan zera izan behar dugu etengabe: nola motibatuko dut ikaslea? Nola xaxatu, nola ilusionatu behar dut ikaslea? Eta familia? Bere kaxara bidea izan dezan, gure helburuak pertsona nor izatea izan behar du.

ZEIN IZAN BEHARKO LITZATEKE IRAKASLEAREN ROLA?

Alexander Barandiaran: Denon artean pentsatu behar al dugu nolako pertsona-ikaslea behar dugun? Beldurra ematen dit. Kontuan hartu nondik gatozen eta zer egin dugun? Instruitu. Nolako pertsona nahi dugu? Maiz homogeneizatu egiten dugu. Ez diogu pertsonari galdetzen zer nahi duen, askotan horretara bideratzen dugulaguk nahi dugun bezalako pertsona sortzeko. Eta non geratzen da aniztasuna?

Lore Erriondo: Ezin dugu esan pertsona libreak behar ditugula? Pertsona sortzaileak nahi ditugula ezin dugula esan? Eredu eta klixe batzuetatik abiatzen bagara ez. Nire ustez, hausnartu egin behar dugu zertan ari garen, eragin handia dugulako. Introspektzioa behar da hausnartzeko nolakoak garen, zer transmititzen ari garen eta zertan eragiten dugun. Horrek ez du esan nahi ez dugunik eragin behar pertsona izate prozesu horretan.

Ane Ablanado: Heziketaren kontzeptuaren oinarrian bertan dago haurrak moldatzen jarraitzea. Umiltasunez begiratu behar dugu zein gizarte dugun, beldurra ematen du. Ongi al gaude? Ez. Biolentzia ikaragarria dago munduan: haurren aurka, emakumeen aurka, herrien kontra, suizidio tasa handiak... Kondenatuak al gaude horrela bizitzera? Haurrari begiratu eta pentsatu behar dut belaunaldi honen potentziala babestuko dudala eta bere fruitua emango duela. Haurrak eredu baterantz ez modelatzen saiatzen garenean, ingurune egokia badago, elkartzasuna bezalako baloreak dituzten umeak hazten dira.

ZEIN IRIZPIDE, TRESNA ETA BALIABIDE? DENA DA EBALUAGARRIA? ZEIN ROL JOKATU BEHAR DUTE IRAKASLE, IKASLE ETA GURASOEK?


Lore Erriondo: Komunikazioa sustatu behar badugu, geuk bermatu behar dugu ikasleek hitza izango dutela. Horretarako, isildu behar dugu, egoerak sortu beraiek

Ezin dugu ikasleen jakin-mina eten, ausartak izan behar dugu eta jakin-minaren elikatzaile bihurtu behar dugu *Lore Erriondo*

hitz egin dezaten eta behatu nola erabiltzen duten hitza. Komunikazioa garatzeko inputak sortuko ditugu eta behatuz ebaluatu behar dugu, behaketaren datuak jasoz, inkestak eginez, ahozkotasuna baloratu... Oharrak jaso eta ebaluatu, ikasleei galdetuz ahalik eta talde txikienetan. Ikasleak autoebaluatuz, gu ebaluatuz, talde ebaluazioa eginez, heteroebaluazioa eginez... eta era berean, gurasoak ere ebaluazioan inplikatu.

Bestalde, azterketa hor dago, askok defektuz erabiltzen dute. Baina azterketa batek ez digu balio momentu oso puntualetan ez bada. Beraz, egin behar duguna behatzea eta gainerakoekin kontrastatzea da (gainerako irakasleekin, ikasleekin, gurasoekin...). Prozesu horretan non abiatu zen baloratu eta non gauden baloratu behar dugu.

Alexander Barandiaran: Nik fokua taldean jarriko nuke bereziki. Nola egiten dugun taldean egiten ari garenaren azterketa. Era berean, egiten dugun praktikaren hausnarketa egin behar dugu: zer egiten ari garen bakoitzaren harremanetan, umearakiko harremanetan... Horretarako hainbat erreminta beharko ditugu: idatzizkoak, audio-bisualak, etab. Gogoetarako, autogogoetarako eta egiten dugun talde praktikaren



hausnarketarako ez dago ohiturarik. Horretarako ez dago kultura askorik zentroetan eta kultura horretan sakondu behar dugu.

Ane Ablanedo: Kalifikatu beharrak erabat baldintzatzen du ebaluazioa. Kalifikazioa urgentziaz eta presaz kendu behar da hezkuntza sistematik. Ezin dugu pentsatu haur guztiek batera eta aldi berean gauza bera ikasi behar dutenik.

EMAITZA? ZERTARAKO BALIO BEHAR DU EBALUAZIOAK?

Alex Barandiaran: Nik uste dut ebaluazioak norberaren autokontzientzia gehiago izateko balio behar duela eta bestearen ongizate zein garapenean duen eragina baloratzeko ere bai. Baldin eta pentsatzen badut aurrean dudanari eskaintzen diodanak ez diola balio, eskaintza egokitu beharko dut. Ondorioz, ebaluazioak etengabeko berrikuntzara eramaten du.

Ane Ablanedo: Guztia ebalua daiteke, baina kalifikatu ez. Eta emaitza? Haurra ataskatua badago nik zer alda dezaket? Edo inguruan zer alda dezaket? Emaitza ez dago aurrez ezarria, ez dago esaterik haurrak noiz jakin behar duen irakurtzen. Izan ere, hainbat erritmo daude. Beti gaude irakaspenaren norabidean. Haurrak behar duen hori ikasiko du, behar duen momentuan ongi badago, ingurune egokia badu.

12

Nola ebaluatu? Nik ez nuke inoiz taldearen arabera ebaluatuko. Taldean ebaluatu bai, baina taldearen arabera ez. Ikasle guztiak adinka eta gelaka banatzen ditugunean homogeneizazio eta lehiarako joera dago. Ez da zaintzen ez hurren berezitasuna ez desberdintasuna. Guk bizitzan adin desberdinekoekin ikasten dugu, modu naturalean aitona-amamekin, lagunekin, auzokoekin.... naturalki behatzen, ikusten eta harremanetan ikasten dugu. Ikaslea etapa guztietatik pasatzen behatu behar dugu eta oztopoak baldin baditu behatzaileak oztopoak paretik kentzen asmatu behar du, aurrera egiten lagundu, kalifikatu gabe, bideratu gabe. Azken finean, ikaslea pozik egotea, gustura egotea eta jakin-mina izatea da bilatu behar duguna.

LOMCE ETA KANPO EBALUAZIOEK ZENBAT ERAGITEN DUTE EBALUAZIO SISTEMAN?

Ane Ablanedo: Kanpo ebaluazioak kanpoko horri ebaluatzea interesatzen zaiona baino ez du ebaluatzen, betiere eredu neoliberallean oinarrituta.

Haurrak behar duen hori ikasiko du, behar duen momentuan ongi badago,
ingurune egokia badu

Ane Ablanedo

Alex Barandiaran: Kanpo ebaluazioa kontrasterako denean beharrezkoa da. Eskola baten barruan hamaika begirada ezberdin daude, baina errealitate baten barruan. Horregatik, kanpo begirada hori garrantzitsua da hainbat pista ematen dituelako, baina honek ez du zerikusirik PISA bezalako kanpo ebaluazio horiekin.

Lore Erriondo: PISA eta horrelakoak Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakunde (gaztelaniazko OCDE) barruko ikasleen arteko errendimendua neurtzeko sortu dituzte; LOGSE edo gainontzeko erreformak ere berdin-berdin. Asko hitz egiten da baina jendeak ez daki zertaz. Kanpo kontrastea inportantea da, baina horiek haien sistemaren barrukoak dira eta neurtzen dute neurtzen dutena. Haien helburuetarako ondo dago, baina ez dute inondik ere neurtzen gure ikasgelen barruan gertatzen dena. Kanpo kontrastea behar dugu, kanpo kontraste zorrotzeta eta baliagarriena gure artean egin dezakegun hori da. Sareak egin, antolatu eta aldamenean gertatzen dena ezagutu behar dugu. Horrela, gure sistema propioa eraikitzen joateko.



HERRI GISA ETA AURRERA BEGIRA EUSKAL HERRIRAKO EBALUAZIO AGENTZIA PROPIOA BEHAR DA? ZEIN PAPER LUKE AGENTZIAK?

Ane Ablanedo: Guk herri gisa estatu egiturak behar ditugu. Gure estatu propioaren egiturak badira ongi etorriak izango dira. Baina ez dakit ebaluazio agentzia behar dugun, hezkuntza sistema bat behar dugula bai.

Alex Barandiaran: Ebaluazio agentziak beldurra ematen dit. Herri honetan ere zentralizatorako joera dugu. Nire ustez, ikuspuntuak lokala izan behar du eta lokala izanik hainbat ikuspuntu ezberdinetatik ebaluatuko genuke. Eredu zentralistatik ihes egingo nuke, horrela, eskola bakoitza ezberdina izanik, inork ez luke eskolaren lana kalifikatuko edo neurtuko.

Lore Erriondo: : Ebaluazio agentzia baino amarauna antolatuko nuke. Urrats asko eman ditugu dagoeneko eta ekarpen ugari ere jaso ditugu. Amaraun sareak adostu behar ditugu, betiere horizontalean. Horrela, parteka ditzakegu gure ideiak, helburuak eta norabidea.

4. EBALUAZIO HEZITZAILEAREN DEKALOGOA

1. Ebaluazioa eredu propioa. Ikaslea ikaste-irakaste prozesuan erdigunean kokatuz eta herri eta herritar gisa ditugun, eskubide, helburu, erronka, nahi eta ametsak aintzat izanda, ulertzen dugu guk ebaluazio eredu propioa. Hezkuntza sistema propioaren bidean ardatzetako bat izaki, bestelako eredu baten bidean urratsak emateko beharra agerikoa da. Hobekuntzan, ekitatean, aukera berdintasunean oinarrituta eta, garrantzizkoa dena, aurrera egiteko plan eta neurri zehatzak eskainiko dituen. Prozesu konplexua eta faktore anitzekoa izanik, ikas-irakaskuntza prozesua osatzen dugun agente guztiok erabaki behar dugu zer, nola, noiz, nork eta zertarako ebaluatu. Emaitzak aztertu eta honen ondotik hobekuntza integralerako neurriak proposatzeko.

2. Ebaluazioaren helburua(k). Ebaluatzea ez da kalifikatzea. Ez da nota bat jartzea. Ebaluatzea ikaste-irakaste prozesuaren baitako elementua da. Autoebaluazioa eta koebaluazioa indartuz, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeaz gain, hauen zergatiak aztertu eta hobetzeko neurri hezitzaileak ezartzeko balio behar du. Ebaluazioak irakaskuntza/ikaskuntza prozesuarekin lortu nahi dugun xede hori ikasleak bereganatu ote duen erakutsi behar digu, hezkuntza ibilbide horretan urratutakoa eta urratu beharrekoa bistan jartzeko.

3. Barne-kanpo ebaluazioa. Gakoa barne ebaluazioa da. Merkatuen interesen arabera inposatutako ebaluazioak arbuiatzen ditugu. Beraz, kanpo ebaluazioak ez dira helburu. Alta, kanpo ebaluazioek modu orientagarrian eta askotan partzialetan bada ere, gure hezkuntza ereduaren osasunaz hainbat datu eta joera adieraz liezazkigukete. Modu koherentean eta arrazionalen inplementatuko dira eta ez dute balio akademikorik izango, ranking eta sailkapenak ekidinez eta konfidentzialtasuna bermatua egonik, sistema hobetzera bideratuak egongo dira beti eta orientagarriak izango dira. Bide horretan, hautapropa eta baxoa gisako azterketak kendu behar dira.

4. Ikaslea ikaste-irakaste prozesuaren ardatza da. Ikasle bakoitza bat eta bakarra da. Autorregulazioa helburu, bakoitzaren erritmo, gaitasun, testuinguru eta berezitasunak ulertuz eta errespetatuz garatu behar da ebaluazioa. Modu integrealean, gizakiaren hiru dimentsioak (psikologikoa, kognitiboa eta soziala) aintzat hartuz eta

norbanako eta herritar gisa modu integral batean garatzeko, tresna eta teknika anitzak erabiliz eta hobekuntza terminoetan neurri hezitzaileak proposatuz. Irakasleak behatzailea eta bidelagun izan behar du prozesu horretan guztitan.

5. Konpetenzietan ebaluatu. Hezkuntza osorako nahiz oinarrizko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira hezkuntza konpetentzia orokorrak eta hezkuntza testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan, bai informaletan. Alta, hauek ez ditugu modu utilitaristan ulertzen. Konpetentzien formulazioak hezkuntzaren xedea beste modu batean ulertu eta planteatzeko bidea ematen digu. Hauek ebaluatzeko formazioa indartu, marko erreferentziala osatu eta tresnak nahiz ereduak beharrezkoak zaizkigu. Era berean, metodologiak berrikusi, baliabide pedagogikoez hausnartu eta eredu pedagogiko berriak ezagutu eta inplementatzeko neurriak beharrezkoak dira.

6. Curriculumak. Curriculumak ortzi-mugarako bidea marrazten du. Euskaldunok Euskal Herriaz ez ezik, munduaz dugun ikuspegiaren irudikapena da. Euskal Herri-rako prestatzen den kultur ibilbidearen hautaketa da, hau da, Euskal Herriko ikasleek, gizabanako eta gizartekide gisa, beraien garapen osoa Euskal Herrian eta mundu zabalean bizitzeko konpetentziak lor ditzaten. Beraz, curriculumak etengabe ebaluatu beharreko atala da. Alta, konpetentziak ikaste-irakaste prozesuaren ardatza badira ez du zentzurik curriculumak irakasgaika eraikitzeak. Euskal Curriculumak berrikusi eta goiko gakoaren baitan eraldatzea proposatzen dugu.

7. Informeak aldatu, notarik ez. Ebaluazioaren baitan, honen emaitzak nola plazaratzen, transmititzen diren garrantzia du. Arlokako kalifikazio informeekin bukatu eta konpetentziak erdigunean kokatuz, hauen gaineko balorazio informea osatzea hobesten dugu. Horren osaketa ikasle eta irakasle zein beste hezkuntza langileen parte hartzeaz eraikitzea proposatzen dugu. Ikaslea izan dadin bere garapeneraren elementuak azaltzen dituen. Ikaskuntza esanguratsua oinarri.

8. Langileon ebaluazio hezitzailea. Autoebaluazio eta koebaluazio terminoetan eginga. Hezkuntza komunitatearen parte hartzean oinarritua eta hobekuntzara bideratua egon behar du. Ikasleen ikaste-irakaste prozesuan eragin gehien dugun aldagaietako bat gara langileok, baita hezkuntza kalitatean ere. Horretarako, eta, ezinbestean, lan baldintza egokiak bermatu behar dizkigute eta konfiantza eta prestigioa beharrezkoak ditugu. Ebaluazioaren bidean, garapenerako hobekuntza

arloak identifikatzen ahalbidetzen lagundu behar du. Hauek aztertu eta ikuspegi hezitzaile eta hobekuntza terminoetan laguntzak eta neurriak proposatu, formazio klabeetan beti.

9. Ikastetxeen ebaluazioa. Ikastetxeen autonomian sakontzen, ikastetxeen ebaluazio eredia garatzea beharrezkoa da ikuspegi pedagogikotik hobekuntza bermatzeko. Halako ebaluazioak ahalbidetu beharko lituzke koordinazio pedagogiko eta curricular hobeak, hezkuntza kalitatea eta familien eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta inplikazioa indartzera zuzendutako kudeaketa eraginkorra ere bai. Ikastetxe bakoitza bere testuinguruan kokatuta, sailkapenak baztertuta eta konfidentzialtasuna bermatuta egonik.

10. Sistemaren ebaluazioa. Sistemaren adierazleak, programak, zerbitzuak, kudeaketa zein elementu nagusiak aldioro ebaluatzea beharrezkoa da, hobetzeko neurriak zehaztu eta hezkuntza-politikarako erabakiak hartzeko oinarri bat izateko. Horren harira, Sistemaren ebaluazio-eredua zehaztea proposatzen dugu; alegia, marko orokorra osatzea.



5. IBLOGRAFIA/WEBGRAFIA

ABLANEDO, A., BARANDIARAN, A., ERRIONDO, L., *Ebaluazio Hezitzailea Iruten jardunaldiak*, LAB, 2017.

https://www.youtube.com/watch?time_continue=3&v=PJ5Egy2g2Oo

BARANDIARAN, A., LARREA, I., "Ebaluazioa birpentsatuz" Haurra ebaluatetik testuingurua ebaluatzerara, *HIK HASI* monografikoa, 29. alea, 2016.

IGLESIAS, R., *Ebaluazioa eskolan*, Hezkuntza Plataformen Topagunea, 2016.

<https://www.youtube.com/watch?v=dfQVyB9yeos>

MURILLO, F. J., ROMAN, M., *Retos en la evaluación de la calidad de la educación en América Latina*, Revista Iberoamericana de educación, 53. zenb. 97-120 or., 2010.

SANMARTÍ. N., *10 ideas clave: evaluar para aprender*, Grao, 2007.

SANMARTÍ., N., *Avaluar per aprendre*, Fundació Jaume Bofill, 2015.

<https://www.youtube.com/watch?v=v16EoFjeqN0>

SANMARTÍ., N., *Hablemos de educación con Neus SanMartí*, Tiching, 2017.

https://www.youtube.com/watch?v=tzvNw_moNeA

SANTOS GUERRA, M.G., *Evaluación educativa*, Editorial magisterio del Río de la Plata, 1999.

TALDE LANEAN, *Evaluar las evaluaciones. Una mirada política acerca de las evaluaciones de la calidad educativa*. IIPE-UNESCO, 2003.

Zer eta nola ebaluatu ikaslea, *Larrun aldizkaria*, Argia, 2011.



iruten@lab.eus